

Nafar Piri-
nioan bizi
da gaur
egun Patxi,
eta Otsaga-
bian egin
dugu zita, abendu-
ko egun la-
bur baina goxoa baliatuz.

**Irailaren bukaeran jaialdi
eder bat egin zenuten Lei-
tzan. Zer ondorio atera zenu-
ten han?**

Leitzan hiru herri ekimen el-
kartu ginen: Gure Esku, Euskal
Herrian Euskaraz eta Gu ere
bai!. Kirol, lurraldetasun eta
hizkuntzaren elkartze bat egin
genuen. Kokalekuarekin Leitz-
a herri kirolari bezala omendu
nahi izan genuen, eta bertatik
hiru gai horiek erabakitze-
ko eskubidea, hizkuntza eskubi-
deak eta kirolarien eskubi-

deak, batera defendatu. Hiru
mugimendu oso desberdin,
baina aldarrikapen batzuetan
bat egiteko modukoak. Ikus-
ten da gai desberdinetan bat
egiteko aukera dagoenean txi-
kiak elkartuta handiago egiten
garela. Leitzakoaren ondorioa,
oro har, hori izan zen.

**Nazioartean ofizialki onar-
tuak izateko eskaeren bidea
ireki zuten federazioek. Zer
eman du bide horrek?**

2020an Eurokopa San Mame-
sen jokatu behar zen, eta guk,
martxoan, Gu ere bai! manifes-
tua, ekimena eta ehunka kirola-
riren atxikimendua aurkeztu
genituen. Besteak beste, euskal
selekzioen ofizialtasuna aldarri-
katu eta 'Euskal Herritik mun-
dura' leloa aurkeztu genuen.
Gerora kirol legeak sinatu dira,

*«Herri guztietan
dago kirol
zinegotzia, baina
maila nazionalean
ez dago kirol
arduradunik.
Hezkuntzakoa
badago, edo
ingurumen arlokoa,
edo etxebizitza
arloan jantzia den
pertsona.
Esanguratsua da»*

akordioak egin dira Madrilen,
Kirol Legea onartu da Gastei-
zen eta kirol proba asko eta in-
portanteak egin dira Euskal He-
rrian: Munduko Sokatira
Txapelketa, eskubaloian na-
zioarteko partida Euskal Sele-
kzioa ofiziala izanik, Tourra pa-
satu da Euskal Herritik...
Impasse une horretan gaude.
Gu izenak berak eraman gaitu
baikor izatera. Gu ere bai! dio-
gunean, 'gu' zabal batez ari ga-
ra, baietz, posible dela esanez,
eta horren inguruan jendea bil-
tzeko. Uste dugu orain dela mo-
mentua hainbat arlotan ekite-
ko. Arlo instituzionalean baina
nazioarteko parametroetan, na-
zioarteko federazioetan hori
lehiatzeko; arlo instituziona-
lean baina barne mailan, izan
Jaurlaritza edo beste instituzio
batzuk, kirolaren alde, kirola-

rien eskubideen alde jarduteko;
eta arlo sozialean, bai kirol
mundua bai euskal kirolaren al-
de dagoen masa kritiko hori
guztia, izan talde, kirolari edo
kirolzale, aktibatze-ko. Ikusten
dugu aukerak daudela, baina ez
dagoela adostutako ibilbide
orririk, arlo horiek aintzat har-
tuko dituenik.

**Pilotan ofizialtasuna lortzeko
aukera handia zegoela zirur-
dien, baina prozesua ez da
erraza izaten ari.**

Bi data inportante datoz:
2026an Argentinan egingo
den Munduko Txapelketa eta
2030ean, Euskal Herrian egin-
go dena. Urratsak egin behar
dira 2026an Euskal Selektzioa
ofiziala izan dadin, eta ez utzi
dena 2030erako. Hori posible
dela dioten adierazle asko
daude, nahiz eta orain arteko
bileretan ez den hori nabari-
tu. Baina oso urrats inportan-
teak egin dira hainbat esta-
mentutan. Indarra egin behar
da, herriz herri eta klubez
klub, geratzen den urte eta er-
dian hori lortzeko. 2030ean,
Munduko Txapelketa Euskal
Herrian egiten denean, ho-
rren eklosioa izan dadin.
Behin nazioartean onartua,
antolatzaile moduan goi-mai-
lako txapelketa izan dadin.

**Martxoan futboleko gizonez-
koen selektzioak ere jokatu
zuen San Mamesen.**

Urteak ziren gizonezkoen parti-
da jokatu gabe. Alde horretatik
erronka handia zen: jokalariei
exijituko ote zitzairen etortzea,
kluben jarrera, momentu har-
tan hautatzailerik ere ez ze-
goen... Urtetako utzikariaren
eta ezintasunaren ispilu. Azke-
nean klubek, gehiegi arriskatu
gabe, jarri zituzten jokalaria
batzuk, eta jokalaria horiek dena
eman zuten, ahalegin izugarria



Jagoba MANTEROLA | FOKU

«Ikusten dugu aukerak daudela, baina ez dagoela adostutako ibilbide orririk»

egin zuten. Gu ere bai! hasieratik partidaren alde agertu zen. Zale batzuk aurka agertu ziren, baina guk, beti bezala, mahai gainean, aldarrikapen batzuk jarri genituen. Federazioarekin pankartarena adostu genuen, jokalariekin ere bai, mobilizazio bat egin genuen Uruguaiako zaleekin batera, eta kutsu kulturala ere eman genion. Itxura eta 'Euskal Herritik mundura' irudi hori ematea lortu zen. Jagoba Arrasate jarri zuten entrenatzaille, Bielsa beste aldean, eta oso partida intentsua eta ona izan zen. Leiho horiek aurkitu behar dira, FIFA leihoak edo egutegian egon daitezkeen aukerak, beste txapelketa batzuetarako entrenatzera etor daitezkeen taldeak, baina argi dago Euskal Selekzioari maiztasuna eman behar zaiola. Federazioari behin eta berriro esan diogu ibilbide orri bat egin behar dela, futboleko bezala beste kirolletan, baina badakigu futbolak traktore lana egin dezakeela. Federazioan hauteskundeak datoz eta inportantea izango da selekzioaren eta ofizialtasunaren aldeko urratsak mahai gainean jarriko dituen euskal federazio bat izatea.

Zalantzak zeuden, baina jendeak ongi erantzun zuen. Masa kritiko batek hor jarraitzen duela ikusten da.

Azken adibide hori izanda, uste dut Euskadiko Federazioak anbizioa eduki behar duela eta partida horiek antolatuz lortu behar duela euskal jokalariek selekzioarekin jokatzeko grina izatea, eta harro egotea horretaz, beraiek ere klubetan esan dezaten «joan nahi dut eta bilatu aukerak hori posible egiteko». Euskal Selekzioaren inguruan inkesta bat egin zen 2021ean zazpi herrialdeetan, eta Naziometroa egiten duen

Parte Hartuz institutu horrek beldurra zuen galdera nola planteatu Nafarroan edo Iparraldean. Eta zur eta lur geratu ziren ikusi zutenean Euskal Selekzioaren gaiak atxikimendu handiagoa lortzen duela, adibidez, erabakitzeko eskubideak baino. Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian zer naturaltasunarekin ikusten den bertako jokalariek Euskal Selekzioan jokatzeko. Historia luzea dago atzetik, Realean edo Athleticen jokatzeko duten jokalaria... euskaltasuna ikusteko modu hori askoz errazago barnertzen da kirolarietara maila politikoan baino. Lehiatzeko, parte hartzeko eta geure koloreak defendatzeko aukerak behar ditugu. Eta uste dut hori gertatzen denean areagotuko dela federazioetatik euskal selekzioaren aldeko dinamika, eta berdin maila instituzional eta sozialean.

Gizonezkoen Eurokopa edo Olinpiar Jokoetan euskal kirolari asko ikusi ditugu emaitza onak lortzen, baina nazio aldarrikapenik apenas. Aldiz, pilotari batzuek Espainiari eta Frantziari uko egin zieten Iruñeko Munduko Txapelketan. Eska dakieke kirolariei halako urratsak egitea?

Gure ustez, oso arriskutsua da ardura guztia kirolarien gain uztea. Eliteko kirolariak ahalik eta lorpen handienak egiteko daude, askotan beraien bekak eta kirol etorkizuna emaitza horiei lotuta daudelako. Asier Martinez datorkit burura. Lortu dituen marka onenak Espainiako koloreak defendatuz lortu ditu, hala defendarazi dizkiotelako, baina nik beti txalotuko ditut bere markak. Edo Oyarzabalaren lorpenak. Euskal Selekzioarekin lortzea nahi dugula? Bada, jar gaitezen horretara. Ez dezagun utzi ardura

guztia kirolarien esku. Niretzat lotsagarriagoa da instituzioetatik urratsik ez egitea. Zer lortzen dugu Oyarzabalek liskar bat izan eta Eurokopa ez joatearekin? Bai, sekulako oihartzuna izango luke, baina gero gu prest gaude maila horretako erantzun bat antolatzeko? Bere erabakiarekin kaltetu bakarra bera ez izateko? Kontuz zer exijitzen diegun kirolariei. Kirolarietara kirol markak lortu nahi dituzte, eta guk aukera eman behar diegu marka horiek lortzeko. Hori gure koloreekin egingo balute, askoz hobea. Ikusten bada horren aldeko giroa, herri giro bat, ziur kirolarietara ere maila emango dutela, lehen ere eman izan dutelako.

Kirolaren garrantzia nabarmena da gure egunerokoan, baina politikara jauzi eginda ez da txikikeriatzat hartzen?

Nik galdetuko banu zein arduratzen den kirolaz EAJren Euzkadi Buru Batzarrean edo Sorturen Nazio Kontseiluan... Ez dago kirol arduradunik, ez baita ez bestean. Herri guztietan dago kirol zinegotzia, baina maila nazionalean ez dago kirol arduradunik. Hezkuntza-koa badago, edo ingurumen arlokoa, edo etxebizitza arloan jantzia den pertsona. Esanguratsua da. Baina, era berean, prentsari, telebistari, irratian... kirolak pisua dauka. Kirolak badu presentzia bat gure egunerokoan. Euskal Herrian kirola bizi dugu, eta kiroltasunez gainera. Kiroltasuna ezaugarri bat da, euskaltasunarekin lotura handia duena. Baina hori gero ez dago ordezkatzuta maila politikoan. Galdera hor dago, eta erantzuna gizartean eta gizartearen ordezkartzean dago. Nik uste dut denbora aurrera doala eta urratsak egitea falta dela.

PATXI GAZTELUMENDI

GU ERE BAI! EKIMENEN KIDEA

Urteak daramatza Patxi Gaztelumendi larrabetzuarrak euskal selekzioaren aldeko mugimenduan. Euskal kirolaren egoerari errebaso bat eman diogu berarekin.

Asier AIESTARAN